

EUSKAL HERRIA ENBLEMATIKOA

EUSKAL HERRIA EMBLEMÁTICA

ETOR - OSTOA

Edizioa / Edición MARTIN ETXEBERRIA

IPUIN
ERROMANTIKOAK

HERRI KULTURAREN NARRAZIOAK
NARRACIONES DE LA CULTURA POPULAR

CUENTOS
ROMÁNTICOS

IV

WEBSTERREN
IPUINEN AZTERKETA

ANÁLISIS DE LOS CUENTOS DE WEBSTER

IMANOL MERCERO



Podemos apreciar, la recíproca influencia que existe entre las palabras y el lenguaje sobre el pensamiento por un lado y del pensamiento y la fantasía sobre las palabras y el lenguaje por otro; cómo meras palabras y sílabas pueden modificar concepciones y creencias; cómo la metáfora, que en un principio presentaba a la mente un objeto con más claridad y viveza confunde rápidamente, y al fin distorsiona la idea original.

Ikus genezake, hitzen eta hizkuntzaren elkarreragina pentsamenduan eta, atzera, pentsamenduarena eta fantasiarena hitzetan eta hizkuntzan; nola hitz eta silaba hutsek eralda dezaketen ikusmolde eta sinismenak; nola metaforak, hastapenetan objektua argiago eta biziago erakutsirik, nahasten duen eta azkenerako erabat distorsionatzen hastapenetako ideia.

750-779 GOD REPAYS AND PUNISHES

750-779 DIOS
RECOMPENSA Y CASTIGA

750-779 SARITU ETA ZIGORTU
EGITEN DU JAINKOAK



750A. THE WISHES

750A. LOS DESEOS

750A. NAHIAK

Miarritzeko aintzira

(J.B.)



750A. Nahiak
750A. Los deseos

Aldi batez, ilhuntchean, Jesus Jaunak eta Jon Doni Petrik, han nonbeit, Negrezeko aldean, Miarritzen, kask, kask, kask jo zuten etche tchar batetako atheari. Eta, etche hartako jendeeri galdegin zioten gau hartako atherbea.

Baietz segurki, sarrarazi zituzten.

Jesus Jaunak galdatu zioten gero, jaterat izan zezaketenez, ahamen bat bederen?

Eta jende gaicho hek aithortu zioten, deusik ez zutela emaiteko.

«Ikherrazue mankan.

—Ba, jauna, ba. Bainan, zorigaitzez, badakigu gure mankaren berri. Huna...».

Eta harritu ziren jende hek, gain-gaineraino ogiz betherik manka ikustearekin...

Belhauniko eman ziren Jesus Jaunaren aintzinean. Eta Jesus Jaunak galdegin zioten orduan, hean ohe bat izan zezaketenez, arras unhatuak zirela biak.

«Ohea ba, gogo onez... Bainan, mihiserik ez ginuke emaiteko...

—Ikusazue berriz oraino.

—Ba badakigu, ba, Jauna, gure mihisen berri.

—Ikusazue halere...».

Eta, sekulako mihisiak atzemanik batto behar ez zen tokian, harrituak hantchet zauden jende gaichoak.

Jesus Jaunak erran zioten orduan:

«Bazter hautako etche guzietan galdegina ginduen gau huntako atherbea... Nehork ez dauku eman zuek baizik. Gaur, entzunen duzue asko harramantza; ez izi batere. Hemen gitazke gu, zuen gerizatzeke».

Eta ohera joan ziren oro...

Gaur hartan, sekulako ihurzuriak izan ziren eta orzantz-karraskak: uria pesiaka, haizea zirimolaka...

Biharamunean, urak eramanik, suntsituak ziren toki hetako etcheak oro, suntsituak ere etche hetako jende guziak.

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri hartu zituen etche tchar hura zen bakarrik chutik han gelditu...

Eta sekulan joaiten bazaizte harat, Negrezeko alderdirat, han ikusiren duzue oraino, gau izigarri hartako uriek egin ur-geldi edo aintzira handiaren bazterrean.

• Jean Barbier

Gure iturria: Légendes Basques. Elkar Argitaletxea, 71. or.

Boketa

(J.B.)

750A. Nahiak
750A. Los deseos



Bertz-aldi batez, jende behar batzuen gana joan ziren Jesus eta JonDoni Petri, gaua heien etchean iragan behar zutela; eta hala egin ere zuten.

Biharamunean, urruntzearekin, jende heieri galdegin zioten Jesusek: zer ari behar ziren egun hartan? Eta ihardetsi

zioten bokata puchkila bat behar zutela churitu. —Jesusek orduan: «Goizean hasi lanak iraun dezauzuetela arrats arte!». —«Bai, urrun da segurki arrats arte huntako lanik izanen baitugu. Puchketeria zerbeit dugu doidoia». —Jesusek berriz: «Ene hitzak izan dezala podore!».

Eta hori erran eta joan ziren...

Jende gaicho hek bokata churitzen hasi, eta bethi athera, bethi athera, arrats arteko lana izan zuten, eta arratsean, mendia bezen gorako oihaleria bazuten, ez baitzakiten gehiago non koka hura guzia.

Eta auzoko jende abarizios zikoitz batzuek, jakinik zer gerthatu zitzaizoten beharño heieri, Jesus eta JonDoni Petriri galdatu zioten ethor zitezten, gauaren iragaiteko, heien etchera. Galdegina egin zuen Jesus onak: eta biharamunean, bertze etchean bezperan bezala, erran zioten jende hekiei: «Zer ari behar zarete egun?». —«Ori, Jauna, puchka bat izan eta, hura behar ginuke zenbat den ikertu, miatu...». Eta Jesusek berehala: «Goizean hasi lanak arrats arte iraun dezautzuetela!».

—«Oh! Jauna, ez dugu arrats arteko lanik izanen, gure diru pittarekin!»... Jesusek berriz: «Ene hitzak izan beza podore!». Eta hori erranik, joan ziren...

Jende zikoitz hek loriatu ziren. Zer urthe eta zilar meta behar zuten arratsean!...

Lana hasi gabe eta lan hartarik den mendrenik ez gero galtzeko, joan ziren, salbu zuek eta, bakar-tokira, zerbitzuetara eta, handik ezin atheraz, han egon behartu zitzaizoten arrats arte!...

• Jean Barbier

Gure iturria: Légendes Basques. Elkar Argitaletxea, 60. or.

756C. THE GREATER SINNER

756C. EL PECADOR MÁS GRANDE

La historia del cilicio

(J.B.)

756C. El pecador más grande

Una vez vivían, como tantos otros en el mundo, un hombre y una mujer y no tenían hijos. Como anhelaban mucho uno, hacen la promesa de que irán a Roma. Nada más hacer el voto, la mujer queda embarazada. El hombre le dice que por consiguiente deben de ir a Roma. A esto la mujer le dice que sí, que ya irán más tarde.

La mujer da a luz. Es un hijo. Crece el muchacho y se da cuenta de que su padre siempre está triste y llora en cualquier esquina. El muchacho llegó a los siete años, pero aquella madre no iba nunca a Roma.

Un día entra el chico en la habitación de su padre y lo encuentra llorando. Le pregunta qué le pasa. Pero no quiere responderle. Toma el muchacho la pistola y le dice a su padre:

—Si no quieres decirme qué es lo que te pasa, te daré un tiro y después me daré otro a mí mismo.

El padre le dice que ya se lo dirá. Que cómo su madre y él habían hecho una promesa de ir a Roma por tener un hijo, y que nunca habían ido.

El hijo le dice:

—La promesa la habéis hecho por mí, por tanto soy yo quien debe ir.

Se despide de todos y parte. Pasa siete años pidiendo pan por el camino. Llega a donde el Santo Padre. Aquél le dice cuál es el motivo que le trae a Roma. El Papa le concede una habitación por una hora. En cuanto sale de ella le dice:

756C. BEKATARI HANDIENA

Ziliziguaren istorigua

(J.B.)

756C. Bekatari handiena

Behin baziren asko munduan bezala jaun andre batzuek. Ez zuten haurrik. Hañitz nahi beitzuten bat izan, iten dute bellia ganen direla Erromarat. Bellia hori iñ orduko emaztea esperantzetan gertatzen da. Jaunak erraten dio gan behar dutela beraz Erromarat. Eta emazteak erraten dio baietz, gero ere ganen direla.

Erditzen da andre hura. Seme bat. Anditzen da mutil hura eta atzematen du bere aita bethi triste eta zoko guzietan nigarrez. Zazpi urtetarat arribatzen da mutil hura eta ama hura ez zuan sekulan Erromarat.

Egun batez sartzen da mutil hura bere aitaren gelarat. Eta atzematen du nigarrez. Erraten dio bada zer duen. Ez dio erran nahi. Hartzen du mutil harek pistola bat eta erraten dio bere aitari:

—Ez baldin banauzu erran nahi zer duzun, tiratzen zaitut kolpe bat eta neri bertze bat gero.

Aita harek erraten dio erranen dioela beraz. Nola iñ zuten haren amak eta biek bellia bat Erromarat gateko haur bat izateko eta sekulan ez zirela gan.

Haurrak erraten dio:

—Neretzat iñ duzube bellia hori eta nik gan behar dut.

Iten ditu adioak eta partitzen da. Ematen ditu zazpi urte bidean bere ogia eskatuz. Arribatzen da aita sendubarenganat. Erraten dio zerk ekhar arazi duen Erromarat. Aita Senduak ematen du gela batetan oren batentzat. Handik atheratu denian erraten dio:



—Parece que se ha confundido usted. Seguro que me ha tenido dos horas.

Le dice que no, que ha estado una hora. Le da otra habitación para dos horas. En cuanto sale de ella, le dice:

—Me ha tenido más de dos horas.

Aquél le dice que no y lo pone en otra habitación para tres horas.

Al salir de allí, le dice:

—No me has dejado estar ni tres minutos.

Y le explica que ha estado tres horas. El Santo Padre le dice que la primera habitación era el infierno, que la segunda era el purgatorio y la última el paraíso(1). El muchacho le pregunta:

—¿Yo dónde estoy?

—En el paraíso. Y su padre también en el paraíso y su madre en el infierno.

Aquel chico se siente apenado y le dice:

—¿No puedo salvar a mi madre vertiendo mi sangre durante siete años?

El Santo Padre le dice que sí. Le entrega el cilicio. Lo cierra con una cadena y echa la llave al agua. Y el Santo Padre le dice:

—Cuando hayas encontrado la llave, tu madre habrá sido salvada.

Parte mendigando y pasan siete años para cuando llega a su pueblo. Así, va a su casa a mendigar. Se le presenta su padre. Éste le pregunta que de dónde ha llegado. Le responde que de Roma. Por lo que le hace otra pregunta, si no ha visto en su camino a otro joven de su misma edad. Le dice que sí, que llevaba siete años recorriendo caminos y derramando su sangre por salvar a su madre.

Y de esta manera, en todo momento le habla de su hijo. Sale la mujer a la escalera y le dice a su marido que deje marchar a aquel mendigo. Éste no le hace caso. Le hace entrar y le dice que va a almorzar con ellos. Esto no agrada a la mujer. El señor manda al mercado a la criada a comprar el pescado más hermoso.

Cuando llega la criada, va al gallinero a limpiar el pescado. Y el joven le sigue por detrás estando ésta limpiando el pescado. Encuentra una llave dentro. Aquel joven le dice:

—Esa llave es mía.

Ésta se la da.

Aquella mujer no podía soportar al joven y le empujó para que cayera al pozo. De golpe el agua crece y el chico sale de ella.

El señor no vio que era su mujer quien le había empujado. El chico dice que se ha caído. Quiere darle sus ropas, pero éste no quiere. Dice que se secará al fuego. En la mesa la mujer no le mira con aprecio.

El joven le dice a ver si él podría conocer a su hijo. Que sí, que sí. Que aquél tenía una verruga en medio del pecho. En esto, el joven desata su vestimenta y enseña su verruga. Y entrega la llave a su madre para que le quitara el cilicio. Así aquella madre ve cuánta pérdida de sangre ha tenido que sufrir.

—Hor tronpatu bide zare. Atxiki nauzu bi oren segurik. Erraten dio ezetz, oren bat egotu dela. Ematen du bertze gela batean bi orenentzat. Handik atheratzen denian erraten dio:

—Atxik arazi nauzu bi oren bañion gehiago.

Erraten dio ezetz eta ematen du bertze gela batian hiru orenentzat.

Handik atheratzean erraten du:

—Ez nauzu utzi ere hiru minuta.

Eta erraten dio egotu dela hiru oren. Erraten dio Aita Senduak lehenbiziko gela zela ifernuba; bigarrena zela purgatorigua eta azkena parabisuba(1). Galdetzen du mutilak:

—Ni nun naiz?

—Parabisuan. Eta bere aita ere parabisuan eta bere ama ifernuban.

Penatzen da mutil hura eta erraten dio:

—Ez dezaket salba nere ama zazpi urtez nere odola isuriz?

Erraten dio Aita Senduak baietz. Ematen dio zilizigua. Kadena batekin zerratzen du eta botatzen du gakoa ure-rat. Erraten dio Aita Senduak:

—Gako hori atzematen duzunian zure ama salbatua izanen da.

Partitzen da eske eta ematen du bertze zazpi urte bere herrirat arribatu orduko. Badoha bere etxerat eske. Hel-du zaio bere aita. Erraten dio nondik heldu den. Erraten dio Erromatik. Galdetzen dio iyan ez duben bada ikhusi bere bidean, haren adiñeko bertze mutil bat. Erraten dio baietz, badabillala kurri zazpi urtez, bere odola isuriz, bere ama salbatzeko.

Eta beti mintzo zaio bere semeaz. Andrea ateratzen da eskalerretarat eta erraten dio bere senarrari utz dezan pobre hura gaterat handik. Ez dio kasurik iten. Sar araz-ten du eta erraten dio heiekin behar duela bazkaldu. Andrea ez zen kontent. Egortzen du neskatua jaunak merkaturat eros dezan harrañik ederrena.

Arribatzen denian neskatxa, badoha basakurterat arra-ñaren garbitzerat. Eta mutila badoha ondotik arrañaren garbitzen ari zelarik. Atzematen du gako bat barnean. Erraten dio mutil harek:

—Neria da gako hori.

Eta ematen dio.

Andre harek ez zezakeen soporta mutil hura eta pusatzen du putzuaeren barnerat. Kolpe kolpez urak gaindi iten du eta mutila atheratzen da.

Jaunak ez zuen ikhusi bere andreak botatu zuela. Erraten du mutillak erori in dela. Nahi diozka bere arropak eman. Bañan ez du nahi, supazterrian idortuko dela. Mahañean andreak ez dio batere begitarte ona egiten.

Erraten du mutillak iyan bada ezagut lezaken bere semea. Baietz, baietz, baduela bi bularren erdian kalitx bat. Eta mutilak idekitzen du bere beztimenta eta irakusten du bere kalitxa eta ematen dio bere amari gakua idek diozala bere ziliziua eta ikusten du ama harek zenbat odol saraskillia sofritu duben.



El héroe

El héroe masculino no hace su viaje iniciático a solas. Suele tener mucha compañía alrededor: viejecitas, trabajadores humildes, seres mitológicos, gente poderosa, reyes y parientes, entre otros.

Mutila

Mutilak ez du bere bidaia iniziatikoa bakarrik egiten. Inguruan geografía bizidun oparoa ibiltzen zaio. Andre zaharrak, langile xumeak, izaki mitologikoak ere ugari, jende botereduna, erregeak eta senideak, besteak beste.



La heroína

La heroína puede ser una chica activa que no duda en usar la fuerza para librarse de su enemigo. No es lo más usual ver a las chicas de los cuentos con un arma en la mano. Es más normal que consiga su premio final y la salida beneficiosa siendo bondadosa, trabajadora y humilde. Su premio suele ser casarse con un príncipe, y esto es muy corriente, casi la única salida buena para la heroína de los cuentos.

Neska

Heroia neska aktibo bat izan daiteke bere areriotik libratzearen indarra erabiltzeko prest dagoena. Ez da ohikoena ipuinetako neskek armak eskuan hartuta ibiltzea. Normalagoa da zintzo, langile eta umila izateagatik lortzea azken saria eta irteera onuraduna. Bere saria errege seme batekin ezkontzea izan ohi da eta hau oso ohikoa da, ia irtenbide on bakarra ipuinetako neska heroientzat.



Tartaros, Gigantes y Forzudos



El tartalo

El tartalo era como un hombre grande.
No tenía más que un ojo y aquél en mitad de la frente.
Tenía gran fuerza y entre los alimentos no le parecía nada tan bueno
como la carne de cristiano: sentía su olor de lejos,
y hacía cualquier cosa para cogerlos.
En el monte tenía su residencia, en el borde de un bosque.



Tartaroa


Tartaroa züzün gizon handi bat bezala.
Begi bat baizik ez zizün eta hura borontearen erdian.
Indar handi bat bazizün eta ez ziozün jatekoetan deus ere
kristikia bezain hunik : hen ürrina senditzen zizün hürüntik,
eta atzamaiteko zernahi egiten.
Bortian zizün bere egongia , oihan baten bazterrean.




Tartaroak, Erraldoiak eta Indartsuak



Enseguida va detrás de él, pero aquél siempre se le escapaba entre aquel gran rebaño de ovejas. Estaba él allí y dejaba pasar a las demás entre las dos piernas, una a una, asegurándose que no salían nada más que ovejas. El joven poniéndose una piel de oveja en la espalda, andando a cuatro patas, allá va entre las ovejas.



Behala undoan juaiten ziozū , bena hura bethi ezkapatzen ziozūn ardi saldo handi haren artean.
Bera han zagularik , bi zankoen artetik besteak üzten ditizū eta igaraitera , bedera bedera , segürtatzen zelarik ez zela deus ere ardi baizik jelkhitzen .
Gazteak, ardi larrü bat ezarririk bizkarrean, lau hatzetan ebiltez, ardien artean badoazü.



Mitos, símbolos, alegorías, esoterismo y alquimia


La fuerza de la magia es el «adur», la fuerza metafísica. Es suficiente con dominar esta fuerza para realizar cualquier acción mágica. La fuerza «adur» no la crea nadie, «adur» está en la naturaleza, puede estar en cualquier sitio, y es suficiente con accionarla correctamente para que actúe.




Magiaren oinarrian adurra dago, indar metafisikoa. Nahikoa da indar hau menderatzea nahi den gertakari magikoa gauzatzeko. Adurra ez du inork sortzen, adurra naturan dago, edonon egon daiteke, eta nahikoa da ahalmen berezi hori behar bezala eragitea indar harrigarri hori agertzeko.



Mito, símbolo, alegoría, esoterismoa eta alkimia



Un día, faltándoles leña, el padre fue con su hija
a por un par de cargas de leña al bosque.
Cuando llegaron al bosque fueron cada cual para un lado,
diciéndose que el primero que hiciese la carga esperase al otro en tal lugar.
¡Eran espantosos los bosques de entonces!
Para cuando completó su carga la muchacha,
le salió de allí, del bosque, un Basajaun,
que agarrándola se la llevó con él a la gruta que tenía por morada.
¿Cómo decir el espanto de la pobre muchacha
y el dolor de los padres, habiendo perdido a la hija?



Egun batez, etxean egurra eskaturik,
aita, bere alaba lagun harturik, joan zen,
zama bana ekarri behar zutela oihanetik.
Oihanera iritsi direlarik, badoaz biak bi aldeetara, elkar hola aditurik:
bere zama lehenik eginen zuenak, bertzearen begira
egon behar zuela, hitzartutako toki batean.
Oihan izugarriak ziren orduko oihanak!
Neska gazteak bere zama egina duenerako,
hor oihanetik aterata, etorri zaio Basajauna;
neska hartuta, eramaten du berarekin, lurpean eginda zuen egoitzara.
Nork erran haur gaixoaren izua
eta gurasoen bihotz mina, beren alaba galdurik?

Salen los dos y se ponen a sacarlos. Empiezan por el cerdo verdadero y entre los dos lo sacan muy bien. Quieren sacar también a los otros, pero sacan siempre los rabos.

El loco decía:

—Lo ves. Están demasiado gordos. Por eso salen solamente los rabos.

Manda al chico a por la azada y la pala. Pero en lugar de coger aquéllas, empieza a golpear a la mujer y grita a su amo:

—¿Una o las dos?

Le dice:

—Las dos.

Y como antes la destroza a golpes y se va cogiendo la pala y la azada.

En cuanto llega a donde el amo empieza a pegarle a éste a golpe de pala y azada. En cuanto lo ha vencido, le arranca la piel de la espalda, coge su cerdo y va a donde su padre y su madre.

Como vivió bien, bien murió.

(Pierre Bertrand)



Notas:

(1) Ver «Mac-a-Rusgaich», de Campbell, Vol. II, pág. 305: «Incluyo en el trato que si cualquiera de los dos se arrepiente, se le arrancará una tira de piel, desde la nuca hasta el talón.»

(2) Salamanca era en la época de De Lancre (1610) el centro reconocido de la brujería y la magia negra. De Lancre está constantemente haciendo juegos con esta palabra. Es por «Sel y manque», etc. Véase también la historia de Gerbert, del Papa Silvestre II, del siglo X

(3) Hallamos este mismo incidente en el cuento gascón «Le Coffret de la Princesse», de Cenac-Moncaut, en «Litterature Populaire de la Gascogne», pág 193 (Dentu, París, 1868).

(4) Compárese este incidente con la muerte del gigante en una de las versiones de «Jack el Matagigantes», especialmente con «The Erse versión of Jack the Giant-Killer», de Campbell, Vol. II, pág. 32.

• Wentworth Webster

Nuestra fuente: Klasikoak 56. Ipuinak I. Edición de Xipri Arbelbide. Edit. Kriselu, pág. 79.

Trad. K.U. y E.A.

Fuente original: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labour», pág. 6; «Le Folk-Lore Du Pays Basque», pág. 46 (ver también 97, 145).

→ Ver Apéndice, pág. 549.

Hilkitzen dire biak eta ematen die atheratzen. Hasten dire egiazko xerritik eta bien artian atheratzen dute ederki. Nahi dituzte bertzeak ere atheratu, bañian beti buztanak atheratzen dituzte.

Erraten zuen erruak:

—Ikhusten duzu. Gizenegi dire. Hartako, buztanak heldu dire bakharrik.

Egortzen du mutila aintzurra eta palaren billa. Hek artze-ko plazan¹² hasten da emaztiaren zanpatzen eta iten dio oi uausiari:

—Bat ala biak?

Erraten dio:

—Biak.

Eta igual zanpa porrokatzen du neskatua eta badoha aintzurra eta pala artu eta.

Arribatzen denian nausienganat hasten zaio hari ere aintzurra eta pala kolpeka. Bentzutu duenian, kentzen dio bizkarreko larruba, hartzen du bere xerria eta badoha bere aita eta amarenganat.

Ungi bizitu baitzen, ungi hil zen.

(Pierre Bertrand)

Hiztegia

1 erro: ero, zoro; 1b dezidatubatu: erabaki; 2 ateka: pasaia hertsia; 3 gaeta: kareta, xehela; 4 hazienda: abere; 5 pariatu: apustua egin; 6 parigo: apustu; 6b palenka: burdinezko esku haga; 7 harilko: hari pilota; 8 oge: ohea; 9 loharkatu: lokartu; 10 zarpa: sakela, poltsikoa; 11 paparo: papoa; 12 artze-ko plazan: hartu beharrean.

Oharrak:

Leyendas Vascas. Miraguano Argitalpena, 33. znb.

(1) Ikus Campbell-en «Mac-a-Rusgaich», II. libk., 305. or.: «Tratuaren barruan sartzen dut, bietatik bat damutzen bada, larruzerrenda bat kenduko zaiola, garondotik hasi eta orporainokoa.»

(2) De Lancre-ren garaian (1610) sorginkeria eta magia beltzaren gune aitortua zen Salamanca. De Lancre etengabe aritzen da hitz jokoak egiten hitz honekin. «Sel y manque», etab. honegatik da. Ikus baita Gerbert-en historia ere, Silvestre II Aita Sainduarena, X. m.

(3) Gorabehera hauxe bera aurkitzen dugu Cenac-Moncaut-en «Le Coffret de la Princesse» gaskoien ipuinean, «Litterature Populaire de la Gascogne»-ean, 193. or. (Dentu, Paris, 1868).

(4) Alderatua bedi gorabehera hau «Jack el Matagigantes»-eko bertsioko bateko erraldoiaren heriotzarekin, Campbell-en «The Erse versión of Jack the Giant-Killer»-ekin bereziki II. libk., 32. or.

• Wentworth Webster

Gure iturria: Klasikoak 56. Ipuinak I. Xipri Arbelbideren edizioa. Kriselu Argitaletxea, 79. or.

Jatorrizko iturria: «Basque Legends: Collected, Chiefly In The Labour», 6. or.; «Le Folk-Lore Du Pays Basque», 46. or. (begiratu 97 eta 145 ere).

→ Ikus Eranskina, 549. or.



La mujer en los cuentos



Intencionalidad y emotividad

En el cuento se pueden distinguir varias intenciones:
Hacer reír; atemorizar; sorprender y enseñar.



Emakumea ipuinetan

Casi todos los cuentos que tienen a las chicas como héroe quieren sorprender. Las heroínas tienen un sentimiento que les es muy suyo: el miedo.



Neskak heroi dituzten ipuin gehienak harridura sortu nahi dioten horietakoak dira. Neska heroiek, dute sentimen bat bereziki haiena dena: beldurra.

Xedea eta hunkiberatasuna.

Ipuinak hunkiberatasun hauek izan ditzazke: Irri egitea; beldurtzea; harritzea edo didaktikoa.





por Imanol Mercero


Los Cuentos de Webster

Una aproximación analítica

Webster-en Ipuinak

Hurbilketa analitiko

Imanol Mercero



Dice Webster

¿Cómo se cuentan hoy en día estas leyendas
y cómo se han preservado?

Los campesinos vascos las cuentan cuando los vecinos,
a la manera conocida a través de los novelistas americanos
en el «Husking Bee», se reúnen a pelar las mazorcas de maíz,
una operación que generalmente se realizaba
en una o dos largas sesiones; o en las bodas u otras fiestas,
de las que encontramos pruebas en los mismos cuentos,
o bien en las largas noches de invierno
alrededor de la chimenea en sus solitarias moradas.

No olvidemos que uno de los encantos de la tierra vasca
es tener las casas dispersas por todo el país
en lugar de reunidas en pueblos llenos de gente;
y quizás ésta sea la razón principal a la que debemos
la conservación de tanta tradición ancestral
e ideas primitivas entre estas gentes.

Webster-ek dio

Nola kontatzen dira kondaira hauek gaur egun,
eta nola gorde dira?

Euskal baseritarrek kontatzen dituzte,
auzokoak artazuriketara elkartzen direnean,
amerikar nobelagileek «Husking Bee»-n ospetsu egin zuten eran,
saio luze batean edo bi irauten dituenan;
edo ezkontzatan eta beste festatan,
zeintzuen frogak ipuinetan beraietan agertzen baitira,
edo baita tximini inguruko neguko gau luzeetan
beraien etxe bakartietan.

Ez dezagun ahantz euskal lurraldearen xarmetako bat
etxeak herri jendetsuetan bildurik izan beharrean
lurralde osoan zehar barreiatuak edukitzea dela;
eta hau da, agian, jende honengan
hainbeste ohitura zahar eta ideia primitibo
gordetzeko arrazoi nagusia.


Lo natural está transido de magia

Magiak berezkoan du eragina



El cuerpo y partes de la persona
Herramientas y utensilios
Ropas y adornos
Comidas y bebidas
Dinero y joyas

Corputza eta pertsonaren atalak
Tresnak eta baliabideak
Arropak eta apaingarriak
Janariak eta edariak
Dirua eta bitxiak



Frutos

Si hay alguna comida que es fuente de magia sin ser comida eso son los frutos. Son conocidos los vestidos, carros y ayudas parecidas que surgen de las avellanas, nueces y de frutos afines. Así dice un cuento en un hermoso orden:

- consigue el vestido de plata abriendo la avellana,
 - consigue el vestido de oro abriendo la nuez
 - y consigue abriendo el melocotón el vestido de diamantes.
- Salta a la vista que los frutos son mágicos por ser contenedores especiales más que por tener propiedades mágicas.

Palos

Sin duda son los palos los medios más comunes para realizar magia en nuestra tradición y seguramente también en las demás tradiciones. Poco se suele mencionar sobre su procedencia, solamente que son pequeños, normalmente.

En un cuento se precisa que ha de ser de avellano, pero es un consejo para aquel contexto en particular y no parece que esta elección pueda generalizarse. Si hay algún palo famoso en los cuentos vascos, con nombre y todo, ese es *Makilakixki*⁵.

Partes del cuerpo

Las partes del cuerpo de los seres mitológicos y sus derivados también son fuente de magia:

En los cuentos los hermanos de la heroína quedan convertidos en vacas al limpiarse los pies con las muelas de un basajaun (Webster I-009).

La mujer-paloma escupe delante de la puerta de su alcoba, para que hable por ella al que viene a tocar la puerta (Webster II-161).

Al héroe se le quita la soriasis (o sarna, tiña) limpiándose con la orina de una yegua blanca y en su lugar se le forman piel y cabellos de oro (Webster II-143).

No hemos encontrado más en la colección analizada, pero la sabiduría popular habla largo sobre las virtudes del pelo, uñas y demás⁶.

Animales

Los animales tienen como las personas opción de tener virtudes mágicas. Conocemos a los animales mitológicos de los cuentos internacionales (unicornio, Pegaso el caballo alado,...) y en los cuentos vascos estamos más acostumbrados a animales corrientes con facultades especiales, entre otros:

- el pez que si es comido da descendencia poderosa,
- animales que hablan,
- el mirlo blanco que con su canto da la visión, .

Fruituak

Jan gabe magia iturri diren janariak baldin badaude, horiek fruituak dira. Ezagunak dira hur, intxaur eta antzeko fruituetatik sortzen diren soinekoak, gurdiak eta antzerako lagungarriak. Hurrenkera eder batean, honela dio ipuin batean:

- hurra irekiz zilarrezko soinekoa eskuratu,
- intxaurra irekiz urrezko soinekoa eskuratu
- eta melokotoia irekiz diamantezko soinekoa.

Ikusten denez beren propietate magikoagatik baino, edukiontzia bereziak izateagatik dira magikoak fruituak.

Makilak

Inolako zalantzarik gabe makilak dira magia eragiteko bitarteko erabilienak gure ipuin tradizioan eta esango genuke nazioartekoan ere hala dela. Makilaren jatorriaz ezer gutxi jakiten da, normalean txikia izaten dela baino ez.

Ipuin batean zehazten denez, hurritza makila erabili behar da, baina testuinguru jakin hartarako aholkua da eta ez du ematen hautapen hau orokortu daitekeenik. Euskal ipuinetan makila ezagunik baldin bada, izena eta guzti baduena, hori *Makilakixki* da⁵.

Gorputz atalak

Izaki mitologikoen gorputz atalak eta gainerako gorputz ekoizkinak ere magia iturri dira:

Esaterako Basajaunaren haginekin hankak garbituta heroiaren anaiak behi bihurtuta gelditzen dira ipuin batean (Webster I-009).

Beste ipuin batean Uso andreak listua botatzen du logelako ate aurrean, haren ordezt mintza diezaion ate joka datorrenari (Webster II-161).

Hirugarren batean behor zuriaren pixarekin garbituz ezkabia kentzen zaio heroiari eta haren ordezt urrezko azala eta ilea sortzen (Webster II-143).

Besterik ez dugu topatu guk arakatutako bilduman, baina ilearen, azkazalen eta gainerakoen dohainez luze mintzatzen da herri jakituria⁶.


Animaliek

Gizakiok ez ezik animaliek ere badute dohain magikoak izateko aukera. Animalia mitologikoak nazioarteko ipuinetan (zaldi adarbakarra, Pegaso zaldi hegoduna, ...) ezagutzen ditugu eta euskal ipuinetan dohain berezia erakusten duten animalia arruntak ikustera ohituago gaudete:

- arraina (berau jenez ondorengo ahaltzuak erditzen laguntzen duena),
- mintzatzen dakiten animaliak,
- edo bere kantuarekin ikusmena ematen duen zozo zuria, besteen artean.

12. **El médico contra sí mismo I-101:** Teniendo el héroe (médico) que salvar a su padre de morir ahogado por una espina, va y le dice: *¡Pero padre! ¿No sabe que yo no sé curar a mis enfermos si no es con cagaditas de oveja?* El padre comienza a reír y le sale la espina y no se ahoga.
13. **La edad del diablo I-103:** El héroe le hace decir al diablo su edad mediante una trampa dialéctica.
14. **Cuentos infantiles. Dos cuervos I-105:** Un cuervo tenía la cola larga y otro cuervo tenía la cola corta. Si el que la tenía corta la hubiera tenido larga este cuento hubiera sido largo, pero como la tenía corta este cuento es también corto (Tiene algo de surrealista este juego dialéctico).
15. **Cuentos infantiles. Las hijas del rey I-105:** Fórmula con rima: *Errege batek bazituen hiru alaba. Beztitu zituen gorriz. Nahi duzu [esatea] berriz?* «Un rey tenía tres hijas. Las vistió de rojo. ¿Quieres que te lo repita?»
- **Tartaro I-195:** No tiene solución dialogada; pero los engaños dialogados son la clave en la lucha entre el héroe y el diablo.
16. **Las tres verdades I-201:** El batelero lleva hasta la otra orilla al zorro a cambio de tres verdades. La última verdad esconde el engaño.
17. **Júpiter I-203:** Se explica cómo se repartieron los bienes en el mundo y cómo los malentendidos entre Júpiter y los terrícolas han condicionado todo.

12. **Dotorra bere burubaren kontra II-101:** Aita hezur batekin itota hiltzetik salbatu behar duela eta heroiak (medikua) zera diotso: *Zer aita! Ez dakizu bada nik ez dakidala sendatzen ardi pikorrekin bertzerik nere eriak?* Aitak barre egin eta eztarririk arrain hezurra ateratzen zaio eta ez da itotzen.
13. **Deabruaren adina II-103:** Heroiak deabruari bere adina iruzurrez esanarazten dio.
14. **Haur ipuinak. Bi bele II-105:** *Asko munduan bezala baziren bi bele. Batek zuen buztan luze bat. Bertzeak buztan txiki-txiki bat. Buztan txikia zuen hark izan balu [buztan] luzea, nire istorioa izanen zen luzea, baina laburra baitzuen, nire istorioa ere izanen da laburra.* (hitz jolasa).
15. **Haur ipuinak. Erregeren alabak II-105:** *Errege batek bazituen hiru alaba. Beztitu zituen gorriz. Nahi duzu [esatea] berriz?*
- **Tartaro II-195:** Ez du ahozko irtenbiderik, baina ahozko iruzurrak giltza dira heroiaren eta deabruaren arteko norgehiagokotan.
16. **Hiru egiak II-201:** batel-zainak azeria ibaiaren besaldera eramaten du, azeriak batel-zainari hiru egia esatearen truk (azken egiak iruzurra gordetzen du).
17. **Jupiter II-203:** Munduan ondasunak nola banatu ziren azaltzen da, eta Jupiter eta mundutarren arteko ahozko gaizkiulertuek baldintzatzen dute dena.



Tres verdades

El muchacho, le respondió de esta manera:

- He aquí tres verdades. La primera: el día más obscuro es más claro que la noche más clara.
- Una.
- Segunda: la madre propia, por mala que sea, es mejor que la mejor madrastra.
- Dos.
- Tercera: tengo veinticuatro años y tres meses y jamás he visto perro mayor que tú.
- Tres. Sube ahora sobre mi espalda y coge una ramita del extremo superior.

Iru egia

Mutilak, edu onetantxe erantzun eutsan:

- Ona emen iru egia. Lenengoa: gaurik argiena baino egunik ilunena argiago da.
- Bat.
- Bigarrena: noberaren ama txarra ugazamarik onena baino obeago da.
- Bi.
- Iruugarrena: ogeta lau urte ta iru ilebete daukadazak eta inoiz etxoat i baino txakur andiagorik ikusi.
- Iru. Igoidak orain lepora ta gorengo adar-kimatxo bat, txaria bat, artuik.

5. Temas

Hemos analizado diez **temas** y en total ha habido 256 apariciones.

Cada tema está subdividido en varios **subtemas** y la lista es larga, demasiado para extendernos en ella. Quien quiera consultarla la encontrará en el apartado denominado «Presentación de los criterios de clasificación».

Huelga decir que los temas se solapan unos con otros y en cada cuento aparecen dos o tres temas diferentes.

Prototipos de toda clase han aparecido con una frecuencia parecida, sin destacar ninguno: Aladino, Piel de asno, La pócima de la juventud, Catorce,... en el 30% de los cuentos han aparecido prototipos.

Tienen una presencia desigual en los modelos de cuentos, con preferencia hacia los cuentos de animales y los de hijos e hijas de reyes. Esto viene a resaltar que los cuentos de estos dos modelos son los más extendidos.

Las **ocurrencias** destacan en los cuentos de animales y en los mitológicos; en los sucesos y en los híbridos hay bastantes y escasean en los de hijos e hijas de reyes y los religiosos.

En el 42% de los cuentos aparecen las ocurrencias.

Entre las ocurrencias las más comunes son las ocurrencias ingeniosas; entre todas las ocurrencias un 53%.

El **sustento** es un tema que aparece,

- especialmente en los cuentos híbridos
- con bastante frecuencia en los cuentos mitológicos, en los de hijos e hijas de reyes y en los de sucesos.
- muy poco en los cristianos.

La superación de pruebas y el patrón malvado son los dos temas que más destacan entre los temas de sustento.

En el 62% de los cuentos aparece el sustento como tema.

La **pareja** aparece sobre todo en los «cuentos de hijos e hijas de reyes» y en los demás poco o muy poco.

Casi siempre son bodas.

El *novio terrible* aparece muchas veces; lo hace el 26% de las veces que aparece el tema de la pareja.

Las **agresiones** aparecen en todos los modelos de cuentos. En el 60% de los cuentos aparece algún tema relacionado con las agresiones.

- La mayoría de las veces en los «cuentos de reyes» y en los «cuentos de sucesos».
- Bastantes veces en los «cuentos híbridos».
- Baja mucho la frecuencia en los «cuentos mitológicos».
- Donde menos aparecen es en los «cuentos cristianos».
- La agresión más frecuente es el secuestro.

5. Gaiak

Hamar **gai** aztertu ditugu eta denera 256 agerpen zenbatu.

Gai bakoitza **azpigai** ugariz osatua dago eta zerrenda luzea da, luzeegia hemen emateko. Jo beza ikusi nahi duenak «Sailkapen irizpideen azalpena» atalera.

Esan gabe doa gaiak elkaturik eta nahasian agertzen direla ipuinetan eta ipuin bakoitzak izaten dituela gutxienez bizpahiru gai batera.

Mota guztietako **prototipoak** maiztasun maila bertsuarekin agertu zaizkigu datuetan, bat nabarmendu gabe: Aladin, Astolarru, Gaztetasunaren edabea, Hamalau,... Ipuin guztien %30etan agertu dira prototipoak.

Prototipoak presentzia desberdina dute ipuin erduetan, bereziki animalia ipuinetan eta erregeen seme-alaben ipuinetan agertzen dira. Honek esan nahi du bi eredu horietako ipuinak direla bildumako ipuin *hedatuena*.

Ateraldiak animalien ipuinetan eta mitologia ipuinetan asko lantzen dira, gizarte gertakarietan eta ipuin hibridoetan nahikotxo eta erregeen seme-alaben ipuinetan eta ipuin kristauetan oso gutxi.

Ipuin guztien %42an lantzen da ateraldiren bat.

Ateraldien artean bereziki iruzur burutsuak agertu dira, iruzurren %53a iruzur burutsuak dira.

Bizibidea

- bereziki ipuin hibridoetan lantzen da,
- eta mitologian, erregeen ipuinetan eta gizarte gertakarietan nahikotxo.
- Ipuin kristauetan oso gutxi.

Frogak gaintitu beharra eta ugazaba gaiztoa dira bizibidearen bi gai jorratuenak.

Ipuinen %62an lantzen dira bizibidearekin zerikusia duten gaiak.

Bikotea erregeen ipuinetan lantzen da ugarien, gainerakoetan gutxi edo oso gutxi.

Ezkontzak dira gehienetan.

Eta senargai beldurgarria ere askotan agertzen da, bikotea gaiaren %26etan.

Erasoak eredu guztietan lantzen dira, gutxi asko. Ipuin guztien %60an agertzen da erasoarekin lotutako gairen bat.

- Gehien gehiena erregeen ipuinetan eta gizarte gertakarietan ipuinetan,
- hibridoetan ere askotxo
- eta maiztasuna dezente jaisten da mitologiakoetan,
- gutxien ipuin kristauetan.
- Erasoa arruntena bahiketa da.

La pobreza, cuando es necesidad extrema no aparece mucho en los cuentos, exactamente en el 14% de todos ellos. El hambre tiene la mayor frecuencia de apariciones. Sobre todo aparecen:

- En los «híbridos».
- En los «de sucesos».
- En los «de hijos e hijas de reyes».
- En los «de animales», en los cuales es más significativa.

La muerte se trata poco. Aparece en el 16% de todos los cuentos.

- En los cuentos cristianos es en los que más se menciona.
- En los mitológicos también aparece.
- En los restantes aparece muy poco.

La mayoría de las veces tratan sobre la muerte del héroe y de la curación del mismo.

Cristianos. Estos temas aparecen en los cuentos de modelo cristiano salvo excepciones. A veces cuando están en hibridación. Aparecen en el 12% de los cuentos.

Héroes extraordinarios. Tiene una frecuencia de aparición baja pero están en todos los modelos de cuentos.

- En los cuentos mitológicos tienen el promedio más alto
- Y seguidamente en los cuentos de reyes,
- En los híbridos
- Y en los cristianos.

La temática más común en este apartado es cuando el héroe es un ser mitológico.

Aparecen en el 21% de todos los cuentos.

Txirotasuna, behar gorria denean ez da asko lantzen ipuinetan, ipuin guztien %14ean agertzen da.

Gehienetan gosea lantzen da halakoetan:

- Ipuin hibridoetan,
- Gizarte gertakarietan
- Erregeen ipuinetan lantzen dira bereziki.
- Gosea animalien ipuinetan esanguratsua da.

Heriotza gutxitan lantzen da, ipuin guztien %16an agertzen da.

- Ipuin kristauak dira gehien lantzen dituztenak.
- Mitologiakoetan ere agertzen da.
- Gainerakoetan gutxi agertzen da.

Gehienetan heroiaeren heriotza eta heroiaeren sendakuntza lantzen dira.

Gai **kristauak** ipuin kristauenak dira huts hutsean, bartzuetan hibridazioan daudenean ere. Ipuin guztien %12an lantzen dira gai kristauak.

Heroi harrigarriak gutxi baina ipuin eredu guztietan lantzen diren gaiak dira.

- Ipuin mitologikoek dute maiztasun altuena
- Eta jarraian erregeen ipuinek,
- Ipuin hibridoetan
- Eta kristauetan ere nahikotxo lantzen da.

Gairik arruntena heroia izaki mitologikoa denean izaten da.

Ipuin guztien %21ean agertzen dira gai hauek.


La muerte del héroe

La muerte se trata poco.

Aparece en el 16% de todos los cuentos.

- En los cuentos cristianos es en los que más se menciona.
- En los mitológicos también aparece.
- En los restantes aparece muy poco.

La mayoría de las veces tratan sobre la muerte del héroe y de la curación del mismo.



Heroiaeren heriotza

Heriotza gutxitan lantzen da, ipuin guztien %16an agertzen da.

- Ipuin kristauak dira gehien lantzen dituztenak.
- Mitologiakoetan ere agertzen da.
- Gainerakoetan gutxi agertzen da.

Gehienetan heroiaeren heriotza eta heroiaeren sendakuntza lantzen dira.

La muerte es la conclusión del cuento

Si vivieron bien, murieron bien.
Como vivieron bien, murieron bien.
Que pronto vendrán a buscarlos
y tal y como lo dijo, al cabo de un año
justo murieron el señor y la señora
y se fueron al cielo.
Si murieron bien, vivieron bien.
Vivieron bien, murieron bien.



Heriotza ipuinen amaiera da

Ongi bizi izan baziren, ongi hil ziren.
Ongi bizi baitziren ongi hil ziren.
Etorriko direla laster haiengana
eta erran bezala, urte baten buruan
justu justua hil ziren jaun andreak eta
joan zerura jaun andreak.
Ongi bizi baziren ongi hil ziren.
Ongi bizi izan ziren, ongi hil ziren.

Notas

- (1) (1978:271, 1ª nota) El original dice así: (...) no de otro modo ocurre con los cuentos populares, de los cuales la tradición conserva los temas con su desarrollo elemental de fondo, pero cuyo arte total –forma sobre fondo– queda encomendado al cuentista, al narrador, quien al contar, hace con el asunto ancestral una verdadera creación nueva, personal; efímera, eso sí, y de momento, y tal que su encanto cesa en cuanto cesa el mismo acto de la narración; pero, en cambio, una creación siempre nueva, siempre fresca, como flor que acaba de abrirse.
- (2) Axeria I-007, Axeria II-047, Otsoa eta astoa II-051, Hiru egiak II-201.
- (3) Son variantes del prototipo-cuento denominado «Las tres verdades». En estos cuentos el héroe debe decirle tres verdades al antagonista a cambio de algo, a veces suele ser a cambio de la vida, otras veces, como en los cuentos que hemos analizado, como pago por pasarlo a la otra orilla del río.
- (4) Haurra trokatua II-027.
- (5) Éstas son las denominaciones que utilizó Vinson al publicar su trabajo en 1883 con el material de Webster (no solo con el de Webster), pero, no nos consta que las siguientes colecciones hayan superado estas denominaciones.
- (6) Quien quiera profundizar en el tema puede encontrar más información en: Luis Estepa & J. M. Pedrosa, Mitos y cuentos del exilio de Ruanda, Sendoa. Especialmente en las páginas 90-94.
- (7) Quien quiera ver el texto original lo puede consultar en el Segundo Tomo de esta colección, pág. 83.
- (8) Olano: perro mitológico de los Tartalos. Mayor que el perro común y con habilidades extraordinarias.
- (9) Quien quiera ver el texto original lo tiene en el Segundo Tomo de esta colección, en la pág. 34.
- (10) Pegar: lurrezko ontzi handia, ipurdia eta ahoa sabela baino estuagoak dituena.
- (11) Esaldi hau moldatua da, jatorrizkoa iluna da-eta: Hasten da beira haizeari ustez eta pasatuko den, kar, kar, kar, kar. Oharra: Websterrek Marie Hiriart ipuin hau kontatu zion andreaken barreak jaso zituen?
- (12) Luis Estepa & J. M. Pedrosa, 2001, Mitos y cuentos del exilio de Ruanda, Sendoa; pág. 135.
- (13) Uhuria, ulua.

Oharrak

- (1) (1978:271, 1. oin oharra) Jatorrizkoak honelaxe dio: (...) no de otro modo ocurre con los cuentos populares, de los cuales la tradición conserva los temas con su desarrollo elemental de fondo, pero cuyo arte total –forma sobre fondo– queda encomendado al cuentista, al narrador, quien al contar, hace con el asunto ancestral una verdadera creación nueva, personal; efímera, eso sí, y de momento, y tal que su encanto cesa en cuanto cesa el mismo acto de la narración; pero, en cambio, una creación siempre nueva, siempre fresca, como flor que acaba de abrirse.
- (2) Axeria I-007, Axeria II-047, Otsoa eta astoa II-051, Hiru egiak II-201
- (3) «Hiru egiak» deitzen den prototipo-ipuinen aldaerak dira. Ipuin hauetan heroiak hiru egiak esan behar dizkio antagonistari aurrean jartzen zaionari zerbaiten truk, batzuetan biziaren truk izaten da, besteetan, guk aztertutako ipuinetan bezala, ibaiaz bestalde pasatzearen pagatu beharreko ordainsari gisara.
- (4) Haurra trokatua II-027
- (5) Hauek Vinson-ek 1883an Websterren materialarekin (ez bakarrik Websterrenarekin) kaleratu zuen lanean agertzen diren izendapenak dira, baina, guk dakigula, gainontzeko bildumek ez dituzte izendapen hauek gainditu.
- (6) Gai honetan sakondu nahi duenak jo beza liburu honetara: Luis Estepa & J. M. Pedrosa, Mitos y cuentos del exilio de Ruanda, Sendoa. Bereziki 90-94 orrialdeetara.
- (7) Jatorrizko testua ikusi nahi duenak jo beza bilduma honetako Bigarren Liburukira. Han dauka ipuin hau 83.orrialdean.
- (8) Olano: Tartalotarren zakur mitologikoa. Zakur arrunta baino handiagoa eta dohain miragarriekin.
- (9) Jatorrizko testua ikusi nahi duenak jo beza bilduma honetako Bigarren Liburukira. Han dauka ipuin hau 34.orrialdean.
- (10) Pegar: lurrezko ontzi handia, ipurdia eta ahoa sabela baino estuagoak dituena.
- (11) Esaldi hau moldatua da, jatorrizkoa iluna da-eta: Hasten da beira haizeari ustez eta pasatuko den, kar, kar, kar, kar. Oharra: Websterrek Marie Hiriart ipuin hau kontatu zion andreaken barreak jaso zituen?
- (12) Luis Estepa & J. M. Pedrosa, 2001, Mitos y cuentos del exilio de Ruanda, Sendoa; 135. orrialdean.
- (13) Uhuria, ulua.

2007ko uztaileen 30ean
Loiolako Inazio jaiegunaren bezperan
burutu zen liburu honen argitalpena.

La edición de este libro concluyó
el 30 de julio de 2007
víspera de la festividad de San Ignacio de Loiola.
